**AURREKONTU OROKORRAREN ONARPENAREN AKORDIO PROPOSAMENA**

**IGELDOKO TOKI-ENTITATE TXIKIKO BATZORDE KUDEATZAILEARI:**

24ko otsailaren 22an Donostiako Osoko Bilkurak, Igeldoko toki-entitate txikia sortzeko amaierako erabakia hartu zuen; eta erabaki horren zati gisa «Igeldoko toki entitate txikiaren proiektua» deitu dokumentua onetsi zuen (2024ko urriaren 24ko UdalbatzaK zuzendu eta osatu zuena).

Aipatu proiektuan, Toki entitate txikiaren aurrekontuari dagokionez, proiektuaren 7.7.12 atalean honako hau adierazi zen:

"1. Igeldoko Toki Entitate Txikiaren aurrekontua Auzo Batzarrak proposatuko du, eta Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Udalaren aurrekontu osoa onartutakoan (Toki Entitate Txikiarena barne) izango da hura ere behin betiko zehaztuta.

2. Toki Entitate Txikiaren aurrekontuaren osaera, kapituluen araberako banaketa eta ekitaldiaren amaierako kitapena Donostiako Udalaren Kontu-hartzailetzak parte izan ondoren egingo da, Auzo Batzarrak onartuko du eta Donostiako Udalaren Osoko Bilkurari dagokio behin betiko onespena ematea. Toki Entitate Txikiaren aurrekontuaren onarpena eta likidazioa Donostiako Udalarenarekin batera finkatuko dira."

Proiektu horren 9.1 atalean Donostiako Udalak Igeldoko Toki Entitate Txikiari gutxieneko diru-sarrerak bermatuko dizkiola zehazten zen, bere antolamendu eta funtzionamendurako, bere eginkizunak betetzeko eta bere eskumen propioak baliatzeko, bai eta berariaz eskuordetzen zaizkionak betetzeko ere.

10740n XVII

Hori horrela izanik, Donostiako Udalbatzak 2024ko abenduaren 19ko bilkuran Aurrekontu Orokorrean ondorengo bi ekarpen hauek onartu zituen Igeldoko Toki-Entitate txikiarentzat:

1. Igeldoko Tokiko Entitate txikiari 2025 urteko ekitaldirako gastu korronterako diru-ekarpena: 1.142.270,00€
2. Igeldoko Tokiko Entitate txikiari 2025 urteko ekitaldirako kapital gastuetarako diru-ekarpena: 357.703,00 €

Hala ere, Igeldoko Toki-Entitate Txikiaren sorrerak atzerapen eta zailtasun asko izan ditu; Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2024ko abenduaren 20an argitaratu zuen 58/2024 Foru Dekretuaren bidez, Igeldoko toki-entitate txikia eratu bazuen ere, 2025eko martxoaren 6an eratu da Igeldoko Toki-Entitate Txikiko Batzorde Kudeatzailea , eta, Batzorde kudeatzailearen lehen bilkura datorren apirilaren 8an izango da.

Atzerapen horien ondorioz, 2025 urteko ekitaldirako Igeldoko Toki-Entitate Txikiko aurrekonturen onarpena, Donostiako Udalaren 2025eko ekitaldiaren Aurrekontu orokorraren behin-betiko onespenaren ondoren egingo da, betiere, Donostiako udaleko Udalbatzak Igeldoko Toki-Entitate Txikiarentzat onartutako ekarpenaren zenbatekoak eta mugak errespetatuz.

Hortaz, 2025eko Ekitaldirako Igeldoko Toki-Entitate Txikiko Aurrekontu Orokorra osatu da 500/1990 Errege Dekretuarekin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauarekin bat etorriz.

Gainera, Aurrekontu Orokorra osatu da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 6. artikuluaren araberako eranskinekin eta dokumentazioarekin, Igeldoko Toki-Entitate Txikiko batzorde kudeatzaileari aurkeztuko zaiona, onar dezan.

Azkenik, aurrekontu honek Donostiako Udalaren Kontu-hartzailetzako aldeko txostena jaso du.

Hortaz, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 4 eta 22 artikuluan; Toki Araubidearen Testu Bat egina 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 41.1 artikuluak; eta azkenik, udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeetan batzorde kudeatzaileak eratzea arautzen duen ekainaren 10eko 608/1988 Errege Dekretuak, xedatutakoaren arabera, ondorengoa onestea proposatzen da:

**ERABAKIAK**

**LEHENENGOA.-** Igeldoko Toki-Entitate Txikiaren 2025eko Ekitaldirako Aurrekontua onartzea. Aurrekontua 1.499.973 eurotan berdinduta dago, eta abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 6.1 artikuluaren araberako eranskinak eta dokumentazioa biltzen ditu.

**BIGARRENA.-** Aurrekontu-exekuziorako Araua onestea.

**HIRUGARRENA.-** Igeldoko Toki Entitate Txikiko langileen 2025eko plantilla onartzea, erabaki honi erantsitako agiriaren arabera, eta erabaki horren berri ematea Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari eta Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari.

**LAUGARRENA.-** Espedienteari indarreko legezko xedapenetan ezarritako tramitazioa ematea. Horrela, jendaurreko epean inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, aurrekontua behin betikoz onetsirik geldituko da, bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Igeldon, sinaduraren egunean

IGELDOKO TOKI-ENTITATE TXIKIKO BATZORDE KUDEATZAILEKO PRESIDENTEA

Iker Zinkunegi Arrillaga.

72481779Q IKER ZINKUNEGI (R: P2000032I)

Digitalki sinatuta norengandik: 72481779Q IKER ZINKUNEGI (R: P2000032I)
Data: 2025.04.01 17:59:41 +02'00'

# AURREKONTU OROKORRA

## Igeldoko Toki-Entitate Txikia
## 2025

## 1. IGELDOKO TOKI-ENTITATE TXIKIKO BATZORDE KUDEATZAILEKO PRESIDENTEAREN MEMORIA

### 1.1. Aurrekariak:

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2024ko abenduaren 20an argitaratu zuen 58/2024 Foru Dekretuaren bidez, Igeldoko toki-entitate txikia eratu zuen. Foru Dekretu horrek, besteak beste, Igeldoko toki-entitatearen eskumenak, ondareak, eta aurrekontu esleipenak zehazten zituen, eta bereziki entitateari nortasun juridiko propioa eta toki-entitate izaera aitortzen zizkion.

Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, Toki-entitate txikiak honako eskumen hauek hartuko ditu , eratzen denetik 2 urte bitartean eskuratuko dituenak:

1. Bide publikoak eta haien elementuak: garbitzeko eta mantentzeko, kontserbatzeko, konpontzeko eta berritzeko lanak.

2. Parkeak, lorategiak eta beste berdegune batzuk: mantentzeko, kontserbatzeko, egokitzeko eta eraberritzeko lanak.

3. Argiteria publikoa: mantentzeko lanak, instalazio berriak eta daudenak berritzea.

4. Hezkuntza-arloa: Lehen Hezkuntzako eraikina eta Haur Eskola garbitzeko, mantentzeko eta eraberritzeko lanak; hezkuntza-arloko elkarteentzako dirulaguntzak; eta hezkuntza-batzorde eta -organoetan parte hartzea.

5. Beste eraikin publiko batzuk: garbitzeko, mantentzeko eta eraberritzeko lanak.

6. Adinekoen sustapena: ekintzak programatzea, dirulaguntzak ematea, erretiratuen elkartearen lokala eraberritzea, etab.

7. Kultura-jarduerak eta jaiak: programazioa, dirulaguntzak ematea, kultura-instalazioak eta -ekipamenduak eraiki eta moldatzea; liburutegi/ludoteka/KZGunea zerbitzua, etab.

8. Euskararen sustapena: dirulaguntzak ematea, eta sustatzeko nahiz sentsibilizatu eta hedatzeko beste ekintza batzuk programatzea.

9. Kirol jarduerak eta ekipamenduak: dirulaguntzak ematea eta beste sustapen-jarduera batzuk burutzea; kirol ekipamenduak (pilotalekua) kudeatzea, mantentzea eta eraberritzea.

10. Partaidetza, berdintasuna, gazteria, aisia eta hezkuntza ez-arautua: dirulaguntzak ematea eta beste sustapen-jarduera batzuk burutzea.

11. Administrazio orokorra: Idazkaritzako eta Kontu-hartzailetzako lanak, dirulaguntzak eskatzeko eta kontratatzeko dokumentazioa prestatzekoak, eta beste administrazio-eginkizun batzuk gauzatzea.

Horretaz gain, Foru Dekretu horrek, Donostiako Udalak Igeldoko Toki Entitate Txikiari gutxieneko diru-sarrerak bermatuko dizkiola zehazten zen; bere antolamendu eta funtzionamendurako, bere eginkizunak betetzeko eta bere eskumen propioak baliatzeko, bai eta berariaz eskuordetzen zaizkionak betetzeko ere.

Hori horrela izanik, Donostiako Udalbatzak 2024ko abenduaren 19ko bilkuran onartu zuen Aurrekontu Orokorrean, ondorengo bi ekarpen hauek onartu zituen Igeldoko Toki-Entitate txikiarentzat:

1. Igeldoko Tokiko Entitate txikiari 2025 urteko ekitaldirako gastu korronterako diru-ekarpena: 1.142.270,00€

2. Igeldoko Tokiko Entitate txikiari 2025 urteko ekitaldirako kapital gastuetarako diru-ekarpena: 357.703,00 €

Azkenik, Donostiako Udaleko Osoko Bilkurak 2024ko urriaren 24ko bileran onetsitako Igeldoko toki entitate txikiaren proiektuan ezartzen zenaren arabera, Igeldoko Auzo-batzarrari dagokio Igeldoko Toki Entitate Txikiaren aurrekontua onartzea. Hala ere, Toki-entitate txikia eratzen denetik hurrengo udal hauteskunde bitartean (2027ko maiatzera

arte), batzorde kudeatzaile batek zuzenduko du toki-entitate txiki berria eta berari dagokio aurrekontuaren onarpena.

**1.2. Aurrekontuak jasotzen dituen egitasmo eta asmo garrantzitsuenak:**

1.2.1 Sarrera: 2025 urterako Igeldoko Toki Entitateak osatutako aurrekontua arrazoi desberdinengatik era esanguratsuan baldintzatuta jaio da. Nabarmena dira sortu berri den entitate batek bere aurreneko aurrekontua zehazteko orduan dauzkan arazoak. Besteak beste esperientzia ezak, langile eta bitarteko falta. Eta garrantzitsuena, hasiera batean, arlo askotan benetako burujabetasun ezak. Kudeaketa batzorde honen lana bi urteren buruan bukatuko da, ez da legealdi arrunt baten parekoa. Ez bakarrik denborari begira lehen aipatutako beste arazo guztiak ere pilatzen dira eta hau nahiko ez balitz paraleloan Donostiako Udalarekin gure eskumenetan sakontzeko negoziaketa guztia ere burutu behar da. Epe motzean aurrekontu honen helburua, jakinda aldaketa sakonik ezin dituela bultzatu, funtzionatzen duena babestea, zerbitzuak bermatzea eta era apal batean hobekuntzak txikiak bultzatu. Kudeaketa batzordearen eta laguntzen gaituzten herritarren xede nagusia etorkizuneko Igeldo benetan eraldatuko duen administrazioaren oinarriak jartzea da

1.2.2 Zerbitzuak: Trantsizioko epealdi honetan dauzkagun zerbitzuak bermatzea da helburu nagusia. Zerbitzu gehienak Donostiako Udalak zehaztutako kontratuen bitartez eskaintzen dira. Hau aldatzen eta Igeldoko beharretara benetan egokitutako zerbitzuak finkatzea epe luzeko erronka da. Baina gure asmoa gai honetan ere pauso txiki batzuk ematea da. Mantenu arloan zerbitzuen jarraipen zuzenago bat egitea eta era berean etorkizunari begira ikasten jarraitzea. Azpimarratu nahiko nuke herrian mugikortasunaren arloan daukagun arazoa hasieratik eta presarik gabe baina heldu beharreko gaia da gure ustez. Era berean zerbitzu hauek bideratzeko dauzkagun azpiegiturak hobetu behar dira. Besteak beste plazako komunetan, eskolan, kultur etxean eta frontoian hobekuntzak aurreikusita daude.

1.2.3 Herritarrak: Sarreran aipatu dudan bezala funtzionatzen duena babestu behar da. Herri honetan horren adibide garbiena herritarrak eta hauek bultzatzen dituzten elkarteak dira. Herriari egiten dizkioten ekarpenak askotarikoak dira: ekintza kulturalak, aisialdia, ikastaroak, trantsizio energetikoa, merkataritza zerbitzuak, hirugarren adina.......Aurrekontu honen helburua elkarte hauen diru iturri nagusitakoa diren dirulaguntzak bermatzea ere izan da. Kasu gehienetan Donostiako Udaletik jasotzen zituzten diru ekarpenak mantendu egin

dira. Beste elkarte batzuk dirulaguntzen eskaeretara gehitu egin dira. Zortez, herri honek komunitate bizia dauka eta etengabe sortzen dira elkarte berriak herriari beraien ekarpena egiteko gogoz. Arlo honetan bi apustu nagusi egin dira. Alde batetik Herri Kontseiluak bultzatzen duen eta euskara hutsean egiten den Orri Informatiboaren dirulaguntza handitzea. Ez bakarrik euskararen normalizazioan eragiten duelako, herritarrak Igeldoren inguruko informazioa jasotzeko bitarteko nagusia delako. Bestetik nabarmena da Jai Batzordeak jasoko duen dirulaguntzan igoera. Azkeneko hamarkadan Donostiako Udaletik jasotzen duen dirulaguntza asko murriztu da eta egoera horretan festa aurrera ateratzeko zailtasunak nabarmenak izan dira. Gure ustez herri honek Herriko Jai duin batzuk merezi ditu. Bestaldetik aipatu nahiko nuke Toki Entitatea sortzeak eskolarekin harremanak estutzen lagundu dezakeela, eskola herriari gerturatuz. Hau berez azkeneko urtetan ematen ari zen prozesu bat izan bada ere, eskolaren mantenuaren eskumena gure esku izateak prozesua areagotu dezake.

Eta azkenik azpimarratu nahiko nuke kulturan aurrekontu propioa izateak ekarri dezakeen hobekuntza. Askotan muga ekonomikoak baldintzatu du herri honek izan duen eskaintza kulturala. Hala ere baditugu bestelako muga batzuk, azpiegitura egokiekin lotuta, eskaintza kulturala hobetzeko nahia honetan. Seguru gaude denborarekin eta proiektu berriekin muga horri ere soluzioa bilatuko diogula.

1.2.4 Inbertsioak: Inbertsioen atalean, ekonomikoki partida garrantzitsuena ez bada ere, gure ustez estrategikoena parte hartze prozesua egitera bideratutakoa da. Parte hartze prozesu honen helburua, herritarrekin batera, herri plan bat osatzen laguntzea da eta gehien bat Herriko kaxkoan hurrengo urtetan bideratuko diren inbertsio nagusiak finkatzea da. Lehenago esan dudan bezala gure helburua etorkizuneko Igeldo izango denaren oinarriak jartzea da eta hori egiteko herritarren parte hartzea funtsezkoa da. Atal honetan azpimarratzekoa da ere Itsas Aurre hobetzeko bideratutako partidak, gehien bat irisgarritasun arloan dauzkan gabeziak konpontzeko. Bestetik ekonomikoki garrantzitsuena dena herriko bideak konpontzera bideratutako partida da. Herritar guztik dakigun bezala Igeldoko errepideen egoera txarra nabarmena da, honek behartzen gaitu hurrengo urtetan arlo honetan ahalegin berezi bat egitera. Berritze hauek garestiak dira eta ondorioz prozesua luzatu egingo da. Horregatik, gai honetan herritarrei pazientzia eskatu nahiko nieke.

2025erako inbertsio aipagarrienak hauek izango lirateke:

| | |
|---|---|
| Herri Bideak | 167.703,00€ |
| Itsas aurre hobekuntzak | 115.000,00€ |
| Kaxkoa berritu parte hartzea | 20.000,00€ |
| Argiteria | 25.000,00€ |
| Urbanizazioa | 20.000,00€ |

**1.3. Aurrekontua:**

2025 urteko ekitaldirako Igeldoko Toki-entitate txikiaren aurrekontua: 1.499.973 eurokoa, horrela banatuta:

| | |
|---|---|
| Langileria gastuak | 196.227,00€ |
| Gastu arruntak | 862.610,00€ |
| Transferentzia arruntak | 83.433,00€ |
| Inbertsioak | 357.703,00€ |

Igeldon, Igeldoko toki-entitate txikiko batzorde kudeatzaileko lehendakari

Iker Zinkunegi Arrillaga

Elektronikoki sinaturiko datan,

72481779 Q IKER ZINKUNEG I (R: P2000032I)

Digitalki sinatuta norengandik: 72481779Q IKER ZINKUNEGI (R: P2000032I) Data: 2025.04.02 15:47:44 +02'00'

**IGELDOKO TOKI-ENTITATE TXIKIAREN 2025EKO EKITALDIARI DAGOKION AURREKONTU OROKORRA**

## SARRERAK

**4 -** Transferentzia arruntak ........................................................................1.499.973,00

**S A R R E R A K  G U Z T I R A .................................................................1.499.973,00**

## GASTUAK

**1 -** Pertsonal-gastuak ...........................................................................196.227,00
**2 -** Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan ..................................................862.610,00
**4 -** Transferentzia arruntak............................................................................83.433,00
**6 -** Inbertsio errealak ............................................................................ 357.703,00

**G A S T U A K  G U Z T I R A ....................................................................1.499.973,00**

## 2. DIRU SARREREN EGOERA-ORRIA/ ESTADO DE INGRESOS

| **2025eko IGELDOKO TOKI-ENTITATE TXIKIAREN DIRU-SARREREN EGOERA/**Estado de ingresos de la entidad local menor de Igeldo 2025 | |
|---|---|
| Kapituloa | 2025 |
| 4 Transferentzia arruntak / Transferencias corrientes | 1.499.973,00 |

| **2025eko IGELDOKO TOKI-ENTITATE TXIKIAREN DIRU-SARREREN EGOERA XEHETASUNAK PARTIDAKA/E**stado de ingresos por partidas de la entidad local menor de Igeldo 2025 | | |
|---|---|---|
| Kontu saila/partida | Sarreraren azalpena/ Explicación de ingresos. | 2.025,00 |
| **9900.990.430.01** | Donostiako Udalak emandako aportazioa (gastu arrunta) / Aportación del Ayuntamiento de San Sebastián (gasto corriente) | 1.142.270,00 |
| **9900.990.730.01** | Donostiako Udalak emandako aportazioa (kapital gastua) / Aportación del Ayuntamiento de San Sebastián (gasto capital) | 357.703,00 |
| | **Guztira/Total** | **1.499.973,00** |

## 3. GASTU EGOERA-ORRIA/ ESTADO DE GASTOS

| **2025eko IGELDOKO TOKI-ENTITATE TXIKIAREN GASTU EGOERA /**Estado de gastos de la entidad local menor de Igeldo 2025 | |
|---|---|
| **Kapituloa** | **2025** |
| 1 Pertsonal-gastuak / Gastos de personal | 196.227,00 |
| 2 Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan /Gastos en bienes corrientes y servicios | 862.610,00 |
| 4 Transferentzia arruntak / Transferencias corrientes | 83.433,00 |
| **TOTALA** | **1.142.270,00** |

| **2025eko IGELDOKO TOKI-ENTITATE TXIKIAREN GASTU EGOERA-ORRIAREN XEHETASUNAK PARTIDAKA/**Detalle del estado de gastos de la entidad local menor de Igeldo 2025 por partidas | | |
|---|---|---|
| **Kontu saila/partida** | **Gastuen azalpena/ Explicación de los gastos** | **2025** |
| **0101.101.120.01** | Oinarrizko ordainsariak / Retribuciones básicas | 51.369,88 |
| **0101.101.121.01.01** | Destino osagarria / Complemento de destino | 25.109,14 |
| **0101.101.121.02.01** | Berariazko osagarria / Complemento específico | 71.060,47 |
| **0101.101. 160.01** | Gizarte aseguruak / Seguros sociales | 48.688,01 |
| | **1. KAPITULUAREN GUZTIZKOA / TOTAL CAPÍTULO 1** | **196.227,00** |
| **0101.180.227.13** | **BIDE PUBLIKOAK:** Mantentzea / Mantenimiento | 12.126,38 |
| **0101.182.227.14** | **ZOLAKETA ETA ASFALTATZEA:** Hiri mantentzeko lanak / Trabajos de conservación urbana | 150.013,51 |
| **0101.160.227.14** | **PARKE ETA LORATEGIAK :** Berdeguneak mantentzeko lanak / Trabajos de mantenimiento de zonas verdes | 12.000,00 |
| **0101.140.227.01** | **BIDE ETA ETXEAURRE GARBIKETA :** Garbiketa lanak / Trabajos de limpieza | 108.378,71 |
| **0101.270.227.18.01** | **KOMUNAK** Komunak zaintzea / Atención de evacuatorios | 6.033,39 |
| **0101.170.221.01** | **ARGITERIA** Energia elektrikoa / Energía eléctrica | 154.147,19 |
| **0101.170.227.13.02** | **ARGITERIA** Argiteria publikoa mantentzea / Mantenimiento de alumbrado público | 86.327,25 |
| **0101.581.226.99** | **HEZIKETARAKO PROGRAMAK** Heziketarako Programak: Berdintasuna, genero indarkeria....... | 1.500,00 |

| | | |
|---|---|---|
| **0101.582.221.01** | **HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA** Energia elektrikoa / Energía eléctrica | 7.488,57 |
| **0101.582.221.03** | **HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA** Gasa / Gas | 14.085,78 |
| **0101.582.221.11** | **HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA** Tresnak eta erremintak / Útiles y herramientas | 2.756,71 |
| **0101.582.221.13** | **HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA** Konponketeta materiala / Material para reparaciones | 1.966,89 |
| **0101.582.227.01** | **HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA** Garbiketa lanak / Trabajos de limpieza | 80.929,19 |
| **0101.582.227.02** | **HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA** Segurtasuna / Seguridad | 3.461,53 |
| **0101.582.227.13** | **HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA** Instalazioak mantentzea / Mantenimiento de instalaciones | 3.449,72 |
| **0101.200.211.01** | **ERAIKINAK:**Eraikinen artapena / Conservación de edificios | 31.367,53 |
| **0101.200.221.01** | **ERAIKINAK:** Energia elektrikoa / Energía eléctrica | 7.088,97 |
| **0101.200.221.03** | **ERAIKINAK:**Gasa / Gas | 3.118,94 |
| **0101.200.227.01** | **ERAIKINAK :**Garbiketa lanak / Trabajos de limpieza | 27.029,76 |
| **0101.320.226.06** | **ADINEKO PERTSONEN SUSTAPENA:** Ekintza soziokulturalak / Actividades socio-culturales | 6.115,09 |
| **0101.052.226.06** | **KULTURA: SUSTATZEA ETA BULTZATZEA** Ekintza soziokulturalak / Actividades socio-culturales | 80.000,00 |
| **0101.052.221.99** | **KULTURA: SUSTATZEA ETA BULTZATZEA** Bestelako hornikutzak jaiak eta ekintza soziokulturalak | 4.000,00 |
| **0101.050.226.06** | **KULTURA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA** Ekintza soziokulturalak / Actividades socio-culturales | 10.308,05 |
| **0101.060.226.06** | **EUSKARA** Ekintza soziokulturalak / Actividades socio-culturales | 3.500,31 |
| **0101.060.227.01** | **EUSKARA** Parketarrak proiektuak | 1.800,00 |
| **0101.281.211.01** | **KIROL INSTALAKUNTZAK :** Eraikinen artapena / Conservación de edificios | 14.087,15 |
| **0101.281.221.01** | **KIROL INSTALAKUNTZAK :**Energia elektrikoa / Energía eléctrica | 2.905,70 |
| **0101.281.227.01** | **KIROL INSTALAKUNTZAK :**Garbiketa lanak / Trabajos de limpieza | 11.079,42 |
| **0101.280.226.06** | **KIROLAK: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA** Kirola sustatzeko jarduerak | 2.500,01 |
| **0101.540.227.04** | **GAZTERIA:** Aisialdiko begirale formakuntza | 3.500,00 |
| **0101.101.226.02** | **ADMINISTRAZIO OROKORRA** | 2.500,00 |

| | | |
|---|---|---|
| | Protokolo Gastuak | |
| **0101.101.226.03** | **ADMINISTRAZIO OROKORRA** Publizitatea eta propaganda | 1.543,21 |
| **0101.101.226.05** | **ADMINISTRAZIO OROKORRA** Batzarrak eta lantaldeak | 1.500,00 |
| **0101.101.220.01** | **ADMINISTRAZIO OROKORRA** Bulegoko Materiala | 3.000,00 |
| **0101.101.222.02** | **ADMINISTRAZIO OROKORRA** Posta Komunikazioa | 1.000,00 |
| | **2. KAPITULUAREN GUZTIZKOA / TOTAL CAPÍTULO 2** | **862.610,00** |
| **0101.160.481.01** | **PARKE ETA LORATEGIAK :**Behemendi kuota | 15.833,15 |
| **0101.581.481.01** | **HEZIKETARAKO PROGRAMAK.** Mendizorrotz Guraso Elkartea: heziketa jarduerak sustatu/zaintza gela | 3.500,00 |
| **0101.581.481.02** | **HEZIKETARAKO PROGRAMAK.** Igeldo Herri eskola: liburutegiko materiala | 800,00 |
| **0101.321.481.01** | **ZAHAR ETXEA** Igeldoko Erretiratuen Elkartea: gizarte-egoera ahulean dauden kolektiboak lagundu. | 12.500,00 |
| **0101.052.471.01** | **KULTURA** Igeldoko Kooperatiba bertako produktuak eta ekoizleak sustatzeko ekintza soziokulturalak. | 4.500,00 |
| **0101.052.481.01** | **KULTURA: SUSTATZEA ETA BULTZATZEA** Ttonttorro Jai Batzordea, Igeldoko jaiak antolatzeko laguntza: kultur jarduerak sustatu. | 10.000,00 |
| **0101.052.481.02** | **KULTURA: SUSTATZEA ETA BULTZATZEA** Ieltxo Kultur Elkartea: kultura, jai eta aisialdi jarduera sustatzea. | 10.000,00 |
| **0101.060481.01** | **EUSKARA:** Gipuzkoako Bertsozale Elkarterako dirulaguntza, Gu ere bertsotan egitasmorako. | 500,00 |
| **0101.060481.02** | **EUSKARA:** Herri Kontseilua-Orri Informatiboa euskarazko aldizkaria: euskararen erabilera eta ezagutza sustatu. | 6.000,00 |
| **0101.280.481.01** | **KIROLAK: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA** Lizardi Igeldo Pilota Elkartea, txapelketak eta ikastaroak: kirola sustatzea. | 4.000,00 |
| **0101.280.481.02** | **KIROLAK: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA** Mendizorrotz Guraso elkartea: eskola Kirola ekimena lagundu. | 1.800,00 |
| **0101.540.481.01** | **GAZTERIA:**Herri Kontseilua, Igeldoko gazteen aisialdia sustatzeko ekimenak. | 2.500,00 |
| **0101.450.481.01** | **HERRI PARTAIDETZA** Herri Kontseilua: interes publikoko gaietan eta politika publikoetako erabakitze prozesuetan herritarren partaidetza sustatu. | 11.000,00 |
| **0101.450.481.02** | **HERRI PARTAIDETZA** Oinherri elkartea bazkide kuota | 500,00 |
| | **4. KAPITULUAREN GUZTIZKOA / TOTAL CAPÍTULO 4** | **83.433,00** |

**4. INBERTSIOEN ERANSKINA/Anexo Inversiones**

| **2025eko IGELDOKO TOKI-ENTITATE TXIKIAREN INBERTSIOAK/**Inversiones de la entidad local menor de Igeldo 2025 | |
|---|---|
| **Kapituloa** | **2025** |
| 6. Inbertsio errealak / Inversiones reales | 357.703,00 |

| **2025eko IGELDOKO TOKI-ENTITATE TXIKIAREN INBERTSIOEN XEHETASUNAK PARTIDAKA/**Detalle de inversiones de la entidad local menor de Igeldo 2025 por partidas | | |
|---|---|---|
| **Kontu saila/partida** | **Inbertsioen azalpena/ Explicación de las inversiones** | **2025** |
| **0101.182.601.01** | **ZOLAKETA ETA ASFALTATZEA** Bide publikoen asfaltatzea (bideen konponketa, lizardia iturria...) | 167.703,00 |
| **0101.182.601.02** | **ZOLAKETA ETA ASFALTATZEA** Azpiegitura eta Urbanizazioa(rokodromoa,haur parkea...) | 20.000,00 |
| **0101.182.601.03** | **ZOLAKETA ETA ASFALTATZEA** Plaza berritu | 20.000,00 |
| **0101.170.623.02** | **ARGITERIA** Argiteria berritu, kontadorea... | 25.000,00 |
| **0101.582.622.01** | **HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA** Eskola Hobekuntzak | 10.000,00 |
| **0101.200.622.01** | **ERAIKINAK** Itsas aurren Hobekuntzak | 115.000,00 |
| | **6. KAPITULUAREN GUZTIZKOA / TOTAL CAPÍTULO 6** | **357.703,00** |

**5. TRANFERENTZI ETA DIRU-LAGUNTZA ARRUNTEN ETA KAPITALEKOEN ERANSKINA/ Anexo de transferencias y subvenciones**

| **2025eko IGELDOKO TOKI-ENTITATE TXIKIAREN TRANFERENTZI ETA DIRU-LAGUNTZA ARRUNTEN ETA KAPITALEKOEN ERANSKINA/**Anexo de transferencias y subvenciones corrientes y de capital de la entidad local menor de Igeldo del 2025 | |
|---|---|
| **Kapituloa** | **2025** |
| 4 Transferentzia arruntak / Transferencias corrientes | 83.433,00 |

| **2025eko IGELDOKO TOKI-ENTITATE TXIKIAREN DIRULAGUNTZA ZUZENEN XEHETASUNAK PARTIDAKA/** Detalle de las subvenciones directas de la entidad local menor de Igeldo 2025 por partidas | | | |
|---|---|---|---|
| **Kontu saila/partida** | **Dirulaguntzen azalpena/ Explicación de las subvenciones** | **2025** | |
| **0101.581.481.01** | **HEZIKETARAKO PROGRAMAK.** Mendizorrotz Guraso Elkartea: heziketa jarduerak sustatu/zaintza gela | 3.500,00 | Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.2.a artikulua: dirulaguntza izendunak, hitzarmenarekin edo hitzarmenik gabe |
| **0101.581.481.02** | **HEZIKETARAKO PROGRAMAK.** Igeldo Herri eskola: liburutegiko materiala | 800,00 | Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.2.a artikulua: dirulaguntza izendunak, hitzarmenarekin edo hitzarmenik gabe |
| **0101.321.481.01** | **ZAHAR ETXEA** Igeldoko Erretiratuen Elkartea: gizarte-egoera ahulean dauden kolektiboak lagundu. | 12.500,00 | Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.2.a artikulua: dirulaguntza izendunak, hitzarmenarekin edo hitzarmenik gabe |
| **0101.052.471.01** | **KULTURA** Igeldoko Kooperatiba bertako produktuak eta ekoizleak sustatzeko ekintza soziokulturalak. | 4.500,00 | Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | 22.2.a artikulua: dirulaguntza izendunak, hitzarmenarekin edo hitzarmenik gabe |
| **0101.052.481.01** | **KULTURA: SUSTATZEA ETA BULTZATZEA** Ttonttorro Jai Batzordea, Igeldoko jaiak antolatzeko laguntza: kultur jarduerak sustatu. | 10.000,00 | Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.2.a artikulua: dirulaguntza izendunak, hitzarmenarekin edo hitzarmenik gabe |
| **0101.052.481.02** | **KULTURA: SUSTATZEA ETA BULTZATZEA** Ieltxo Kultur Elkartea: kultura, jai eta aisialdi jarduera sustatzea. | 10.000,00 | Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.2.a artikulua: dirulaguntza izendunak, hitzarmenarekin edo hitzarmenik gabe |
| **0101.060481.01** | **EUSKARA:** Gipuzkoako Bertsozale Elkarterako dirulaguntza, Gu ere bertsotan egitasmorako. | 500,00 | Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.2.a artikulua: dirulaguntza izendunak, hitzarmenarekin edo hitzarmenik gabe |
| **0101.060481.02** | **EUSKARA:** Herri Kontseilua-Orri Informatiboa euskarazko aldizkaria: euskararen erabilera eta ezagutza sustatu. | 6.000,00 | Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.2.a artikulua: dirulaguntza izendunak, hitzarmenarekin edo hitzarmenik gabe |
| **0101.280.481.01** | **KIROLAK: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA** Lizardi Igeldo Pilota Elkartea, txapelketak eta ikastaroak: kirola sustatzea. | 4.000,00 | Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.2.a artikulua: dirulaguntza izendunak, |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | hitzarmenarekin edo hitzarmenik gabe |
| **0101.280.481.02** | **KIROLAK: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA** Mendizorrotz Guraso elkartea: eskola Kirola ekimena lagundu. | 1.800,00 | Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.2.a artikulua: dirulaguntza izendunak, hitzarmenarekin edo hitzarmenik gabe |
| **0101.540.481.01** | **GAZTERIA:**Herri Kontseilua, Igeldoko gazteen aisialdia sustatzeko ekimenak. | 2.500,00 | Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.2.a artikulua: dirulaguntza izendunak, hitzarmenarekin edo hitzarmenik gabe |
| **0101.450.481.01** | **HERRI PARTAIDETZA**<br>Herri Kontseilua: interes publikoko gaietan eta politika publikoetako erabakitze prozesuetan herritarren partaidetza sustatu. | 11.000,00 | Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22.2.a artikulua: dirulaguntza izendunak, hitzarmenarekin edo hitzarmenik gabe |
| **0101.160.481.01** | **PARKE ETA LORATEGIAK :**Behemendi kuota | 15.833,15 | Ekarpena |
| **0101.450.481.02** | **HERRI PARTAIDETZA** Oinherri elkartea bazkide kuota | 500,00 | Ekarpena |
| | **4. KAPITULUAREN GUZTIZKOA / TOTAL CAPÍTULO 4** | **83.433,00** | |

**6. LANGILEEN ERANSKINA, ENTITATEAREN AURREKONTU PLANTILLA OSATZEN DUTEN LANPOSTUEN ZERRENDA/ Anexo de personal, con la relación de los puestos que integren la plantilla presupuestaria.**

| | |
|---|---|
| 24ko otsailaren 22an Donostiako Osoko Bilkurak, Igeldoko toki-entitate txikia sortzeko amaierako erabakia hartu zuen; eta erabaki horren zati gisa «Igeldoko toki entitate txikiaren proiektua» deitu dokumentua onetsi zuen (2024ko urriaren 24ko UdalbatzaK zuzendu eta osatu zuena). Proiektu horren 7.4.12 atalean, honako lanpostu hauek sortzea onartu zen, toki-erakunde txikiak bere eskumenak baliatu ahal izan zitzan: | El Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, en sesión celebrada el día 22 de febrero de 2024, adoptó el acuerdo final de creación de la entidad local menor de Igeldo, aprobando como parte de dicho acuerdo el documento denominado «Proyecto de la entidad local menor de Igeldo», (corregido y completado por el Pleno del Ayuntamiento el 24 de octubre de 2024). En el apartado 7.4.12 de dicho proyecto, se aprobaba la creación de los siguientes puestos para que la Entida Local menor pudiera ejercer de sus competencias: |
| 1. Mantentze-lanetako/hirigintzako teknikaria edo Arkitekto tekniko bat: Zerbitzu hauek izan daitezke haren erantzukizunpean: bide publikoak, parkeak eta berdeguneak, argiteria publikoa, hondakinen bilketa eta tratamendua, hilerri-zerbitzua, eraikinen mantentze-lanak, iraunkortasuna eta ingurumena. %100eko dedikazioarekin lan egingo du.<br><br>2. Garapen eta zaintza soziokomunitarioko teknikaria. Alor hauek izan daitezke haren erantzukizunpean: kultura, hirugarren adina, euskara, kirola, hezkuntza, parte-hartzea, berdintasuna eta gazteria. %50eko dedikazioarekin egingo du lan.<br><br>3. Administrazio orokorreko teknikaria. Haren eginkizunak izango dira administrazio-funtzioei dagozkien jarduera propioak egitea; adibidez, proposamenak egitea, ikuskatzea, kontrolatzea, planifikatzea, gauzatzea, arauak egitea eta antzekoak. Idazkaritza, lege aholkularitza eta kontuhartzailetza eginkizunak ere egin ditzake. Nolanahi ere, Udaleko | 1. 1 técnico/a de área de Mantenimiento/Urbanismo o Arquitecto técnico. Podrán ser responsabilidad esta persona los servicios de vías públicas, parques y zonas verdes, alumbrado público, recogida y tratamiento de residuos, servicio de cementerio, mantenimiento de edificios, sostenibilidad y medio ambiente. Con una Dedicación del 100%<br><br>2. 1 técnico/a de Desarrollo y Cuidados Socio-comunitarios Podrá ser responsable de las áreas de cultura, tercera edad, euskera, deporte, educación, participación, igualdad y juventud, con una dedicación del 50 %.<br><br>3. 1 técnico/a de Administración General: Sus funciones serán la realización de actividades propias de las funciones administrativas, tales como la elaboración de propuestas, supervisión, control, planificación, ejecución, elaboración de normas y similares. Podrá también ejercer funciones de secretaría, asesoramiento jurídico e intervención. En todo caso, la persona que ejerza |

| | |
|---|---|
| Idazkaritza Nagusiak izendatuko du Idazkaritza/Kontu-hartzailetza eginkizunak beteko dituen pertsona (dela AOT, dela beste formula bat), eta Udalaren eta Udaleko kontu-hartzailearen eskuordetzaz jardungo du gaikuntza nazionaleko eta zuzendaritza juridikoko eginkizun erreserbatuetan. Con una Dedicación del 100%<br><br>4. Administraria. Lanpostuak berezko dituen laguntza lanak egingo ditu. %70eko dedikazioa izango du. | las funciones de Secretaría-Intervención (TAG u otra fórmula) será designada por la Secretaría General del Ayuntamiento, actuando por delegación del Ayuntamiento y de Intervención del Ayuntamiento en funciones reservadas de habilitación nacional y dirección jurídica. Con una Dedicación del 100%<br><br>4. Administrativa/o: Realizará las tareas de apoyo propias del puesto de trabajo, con una dedicación del 70 %. |

**FUNTZIONARIEN PLANTILA ZENBAKIDUNA**
**PLANTILLA NUMÉRICA FUNCIONARIOS/AS**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ESKALA / ESCALA** | ADMINISTRAZIO OROKORRA / ADMINISTRACIÓN GENERAL | | |
| **AZPIESKALA / SUBESCALA** | TEKNIKOA TÉCNICA | | |
| **KLASEA / CLASE** | | | |
| **PLAZAREN IZENA / DENOMINACIÓN DE LA PLAZA** | **KOPURUA/ NÚMERO** | **IRAUNGITZEAR/ A EXTINGUIR** | **AZPITALDEA/ SUBGRUPO** |
| ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA / TÉCNICO/A DE ADMINISTRACIÓN GENERAL | 1 | 0 | A1 |

,

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ESKALA / ESCALA** | ADMINISTRAZIO OROKORRA / ADMINISTRACIÓN GENERAL | | |
| **AZPIESKALA / SUBESCALA** | ADMINISTRAZIOA/ADMINISTRATIVA | | |
| **KLASEA / CLASE** | | | |
| **PLAZAREN IZENA / DENOMINACIÓN DE LA PLAZA** | **KOPURUA/ NÚMERO** | **IRAUNGITZEAR/ A EXTINGUIR** | **AZPITALDEA/ SUBGRUPO** |
| ADMINISTRARIA / ADMINISTRATIVO/A | 1 | 0 | C1 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ESKALA / ESCALA** | ADMINISTRAZIO BEREZIA / ADMINISTRACIÓN ESPECIAL | | |
| **AZPIESKALA / SUBESCALA** | TEKNIKOA / TÉCNICA | | |
| **KLASEA / CLASE** | ERDI MAILAKO TEKNIKARIAK / TÉCNICOS/AS MEDIOS/AS | | |
| **PLAZAREN IZENA / DENOMINACIÓN DE LA PLAZA** | **KOPURUA/ NÚMERO** | **IRAUNGITZEAR / A EXTINGUIR** | **AZPITALDEA/ SUBGRUPO** |
| ERDI MAILAKO TEKNIKARIA / TÉCNICO/A MEDIO/A | 1 | 0 | A2 |
| ERDI MAILAKO TEKNIKARIA (ARKITEKTO TEKNIKOA) / TÉCNICO/A MEDIO/A (ARQUITECTO/A TÉCNICO/A) | 1 | 0 | A2 |

## 7. Programazioa, Azterlanak eta Aurrekontuak/Programación, Estudios y Presupuestos:

### 7.1.- BIDE PUBLIKOAK ETA HORIEN ELEMENTUAK/ Vía pública y sus elementos

| PROGRAMAREN JARDUERA LERROA | LÍNEA DE ACTUACIÓN DEL PROGRAMA |
|---|---|
